



Gaur emango dute jakitera Abesbatza Lehiaketako Sari Nagusiko irabazlea

TOLOSA ▶ Beotibarren egingo duten Abesbatza Dantzaldian esango dute, 23:00etatik aurrera

EGITARAUA ▶ Musika sakratua, folklore eta polifonia sailetan ariko dira gaur Santa Klaran eta Leidorren ▶ 2,3



Erresuma Batuko Voces Cantabiles abesbatzako kideak, atzo, Leidorren eginiko emanaldian. E. EZEIZA

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Kirol gogorra da aizkora baina, batez ere, laguntzarik gabekoa»

Omenaldia egingo diote Mujikarekin, bihar, babarrun jatearen baitan ▶ 6



I. ASENSIO



Odol-emaleen elkarteak lau herritar saritu ditu

ALEGIA ▶ Herriko lau biztanle odola emateagatik saritu ditu Gipuzkoako odol-emaleen elkarteak —bik 25 aldiz eta beste bik 50—. Odola ematearen onuraren gainean jardun dute bostek Hitzarekin; «Sentsazio ona izateko eta osasuna hobetzeko» egozia dela azaldu dute. Guztira gure Tolosaldean eta Leitzaldean 1.175 odol-emate inguru daude urtean. N. URBIZU ▶ 5

XABIER OLARRA ▶ ITZULTZAILEA

«Garrantzia izan du beti itzulpengintzak gurean»

Itzulpengintzako Euskadi Saria jaso du 'Estilo ariketak' liburuarengatik ▶ 7



Xabier Olarra. GARI GARAIALDE / A.P.

GAUR Zinema Etxean 2

8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Lehiaketaren azken txanpan

Gaur emango du epaimahaiak erabakia jakitera Beotibarren 23:00etatik aurrera egingo den dantzaldian; aurretik, helduen hainbat emanaldi izango dira

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Azken txanpara iritsi da Tolosako 38 Abesbatza Lehiaketa. Gaur gauean, ohiko dantzaldian emango dute jakitera nork eramango duen sari nagusia. Baina horren aurretik beste hainbat emanaldi izango dira: 11:00etatik aurrera, Santa Klara elizan musika erlijioso sailean parte hartuko duten ahots taldeen kantaldia izango da. Hauek, herenegun, musika profano sailean lehiatu ziren berberak dira —Ensemble Vocal Peñalosa, Aros Vocalensemble, Ankapella, Anima, Voces8 eta Cardinal Singers—. Ondoren, Leidor antzokian, 16:00etatik aurrera, folklore eta polifonia sailean lehiatuko dira beste hainbat koru. Hala, ondoren izendatutakoek gain,



Gaur arratsaldean entzun ahal izango dira Indonesiako Batavia Madrigal Singers abesbatzakoak. HITZA

El leon de oro abesbatza asturriarra folklorean lehiatuko da.

POLIFONIA ETA FOLKLOREA BATAVIA MADRIGAL SINGERS

Jatorria. Yakarta (Indonesia).
Zuzendaria. Avip Priatna.

Taldeakideak. 14 emakume eta 12 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.

Historia. Indonesiako abesbatza liderretako batda, Parahyanganeko Unibertsitate Katolikoko ikasleek eratu zuten 1996an. Hasieratik Avip Priatna da bere zuzendaria. Aurten bigarren aldiz gon bidatu dituzte Normandiako (Frantzia) Polyfolia Choir Festivalera.

VOCALIS

Jatorria. Rygge (Norvegia).

Zuzendaria. Tone Bianca Dahl.

Taldeakideak. 35 emakume.

Taldeak. Ahots berdinak.

Historia. Lanbide desberdinetako 35 kidez osaturik dago abesbatza garu egun. Guztiak Tone Bianca Dahl, Noebegiako

KENT HATTEBERG ▶ THE UNIVERSITY OF LOUISVILLE CARDINAL SINGERS-EKO ZUZENDARIA

«Sariren bat lortzekotan, polifonia arloan izango da»

1970an Hatteberg estatubatuarrak eratu zuen Cardinal Singers abesbatza. Emakumeen ahots taldearen nahiz ahots nahasiaren koruaren zuzendaria da bera ordutik. Gaurkoan, musika sakratuan ariko da emakumeen taldearekin, eta polifonia eta folklorea gainontzekoekin. Berarekin izan gara emanaldiak baino lehen.
Zer moduz Leidor aretoan herenegun eskainitako saioa?
Gustura geratu gara egindako lanarekin. Bestalde, aretoa akustikoki lehorra dela nabari-

tu dugu, eta ondorioz, kantuen hasierak eta amaierak laburregi geratzen direla, beraz, aldatuta batzuk egin genituen aretoa egokitzeko kantuak.

Tolosako entzuleak nolakoak dira?

Oso entzule onak. Adi egoten dira entzuten eta ikusten eta hori asko eskertzen da.

Santa Klara elizan eta Leidorren ariko zarete biharkoan, ahots taldeetan eta ahots nahasietan.

Elizan emakumeek gehiago ahoskatu behar dute hobeto



Cardinal Singerekoak, eta ezkerrean Hatteberg, bere zuzendaria. HITZA

ulertzeko, ahotsa elizaren bukaerara arte eraman behar baita. Bestalde, aretoan, gehiago orientatu behar da taldeek elkar ondo entzuteko. Publikoak aretoan guztia entzuten du, beraz, hutssegiteak ez egitea lortu behar da.

Nolakoa da beste taldeen maila?

Ez dut aukerarik izan beste taldeak entzuteko. Dena den, gaurkoan ariko den Alemaniako abesbatza ezagutzen dut eta oso kalitate onekoa da.

Europako eta Ameriketako

abesbatzen artean desberdintasun handiak al daude?

Bai, tonuen kalitatean, esaterako. Ama hizkuntzaren arabera tonuak eta azentuak asko aldatzen dira eta horrek abestiak oso desberdin egitea dakar.

Faboritoen artean zaudete.

Guretzat parte hartzea ohorea da, koruaren maila igotzea baita gure helburua, eta lehiaketa aukera polita da gogor lan egiteko. Sariren bat lortzekotan polifonia arloan izango litzatekeela uste dut.

Nolakoa da Tolosako Abesbatza Lehiaketa?

Bertako kalitateari buruz ezer gutxi esan dezaket, parte hartzen duten talde guztiak ez baitituzte ezagutzen. Bestalde, antolamenduari dagokionez, antolatzaileek oso lan ona egin dutela esan behar dut, eta oso harrera ona egin digutela. ◀

ARAMBURU
Salgai edo alokairuan (Tolosa).
Lokal komertziala Herreros kalean.
Salgai (Tolosa).
Pisua San Frantzisko, 17. 140 m². Bistekin.
Salgai (Tolosa). Pisua Laskorain 3, kalean.
Salgai (Tolosa). Ileaipaindegi egokitu lurren.
Salgai (Tolosa).
Beldierdiak, kale Nagusian, negozioa marban.
Salgai (Tolosako lurren). Ofizinarako, Maseak emateko, etab, lokal txikia, Oso modu onean.
Salgai
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarra.
Salgai (Tolosa). Garajeak, Leidor azpian.
Salgai (Tolosa).
Lokal komertziala, Gernikako arbolan.
Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidean eta lurre auzoan garaje itxia.
Alokatzeko (Tolosa).
Lokal komertziala, Gernikako arbolan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**XOXOTEKO
ATERPERAKO
ZAINDARIA
BEHAR DA**

Interesatuak bidali
kurrikulum-a:
Lagun Onak M.B.
Eliz Kale 21 behea
20730 Azpeitia

Epea: Abenduaren 15a baino lehen

Informazio gehiago
689898493 telefonoan

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro. 18ko llantak eta sabaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.

LANA

Ileaipaintzailea. Honekin ciber ileaipaindegiak laguntzaile eta ofizialak behar ditu. 943 67 22 44 edo 635 736 375.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

zuzendari ospetsuenetako baten zuzendaritzapean. Hala, nazioarte mailan, eta batez ere, nazioarteko lehiaketan bitartez, ospe handia lortu dute. Bere errepertorioan garai historiko guztiak sartzen dira, Errenazimendutik XX. eta XXI. mendetako musikaraino. Baina eskandinaviar musikari garrantzi berezia eskaintzen dio,

bai bere izaera herrikoia nabarmen jartzen duena baita asmo polifoniko argia duten beste batzuk ere.

STUDIO VOCALE KARLSRUHE
Jatorria. Karlsruhe (Alemania).
Zuzendaria. Werner Pfaff.
Taldeakideak. 12 emakume ta 12 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.
Historia. Werner Pfaffek eratu zuen 1980an eta gutxi gora behera 28 abeslarik osaturik dago. Bere historialean nabarmentzekoak dira Europako abesbatza lehiaketa garrantzitsuenetan lortutako sariak, Goriziakoa (Sari Nagusia 1987), Tolosakoa (bi lehen sari 1988an eta bi bigarren sari

1999an). Sari hauei esker, eta beste hainbatei, Studio Vocale Carlsruhe nazioartean oso ospe ona du.

UNIVERSITY OF LOUISVILLE CARDINAL SINGERS
Jatorria. Louisville (AEB).
Zuzendaria. Kent Hatteberg.
Taldeakideak. 18 emakume eta 18 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.
Historia. 1970ean eratu zen abesbatza hau, William C. Lathonek University Singers izenpean. Gaur egun, ahots taldeak hirian, eskualdean, nazioan eta nazioartean agerraldi ugari egiten ditu. Gainera, Amerikar Estatu Batuetako abesbatza onenetako bat bezala ezagutzen da.



Erresuma Batuko Voces Cantabiles abesbatzatan atzoko emanaldian. E. ZEIZA



Italiako Bottega Musicale abesbatza atzo, Leidor aretoan eskainitako saioan. E. ZEIZA

IRITZIA ▶ MIGUEL ZEBERIO (ABESBATZA ETA ORKESTRA ZUZENDARIA)

Ai zer plazerra!



Ostegun arratsaldeko taldeek eskainitako saioak, batzuk bestetik erabat desberdinak izan ziren osakerari dagokionean: lau laguntik bi dozenatara, baina xedea berbera. Ekitaldiaren kalitateak aurrera joan ahala nabarmen egin zuen gora. Gailurreranzko bidea intentzioz egituratu bazen ez dakit, emaitza berriz ezin aproposagoa suertatu zen. Suitzako Ensemble Vocal Peñalosa laukoteak asmo onak erakutsi zituen. Agian plastikoki askeago aritzea mese-

degarri lukete gehiegizko xamurtasunean erori gabe. Turkiako Ankapella aldiz koru txiki baten antzekoa da, jardunean irregularrak izan ziren. Behetik goranzko bidea egin zuten. Aipagarria, B Englbrecht-en bi korurentzako *Verstohlen Geht der Mond* obran gizon eta emakumeen arteko elkarriketa eta turkiar doinu herrikoien gainean erakutsitako atsegina.

Errusiako Anima gizonetako boskotea indarberritua agertu zen. Taularatzearras espresiboak eta elkarren artean ondo jositako ahotsek ibilbide atsegina eskaini ziguten. Yuri Falik-en obra deskriptibo aldi berean fin, konplexu eta politak, Rimsky Korsakov-en *Eulitzararren Hegaldia* ezagunarekin alderatu zuten bai eta entzulegoa gustoz aztoratu

ere. Volga ertzeko soinu trinkoz boro-bildu zuten kontzertua V Smirnov-en musikaz.

Erresuma Batuko Voces8: erakustaldia bai bikaina. Antzeko Britaniar talde profesionalenen inbidiarik gabe, show areneko Xabier Leturia panderojoleak dion bezala txouaren eta musikalaren genero esker onekora eraman gintuzten. Une oro anglosaxoniarraren eremuari muzin egin gabe, Gershwin en patroi erritmiko baten gainean azaltzen joan zitzaizkigun banan bana aretoan eta amaieran erritmo bizkor eta zehatzezko *I'm a train*-era igoarazi gintuzten arte, sorginduak egon ginen. Tarteetan, sei ahotsetara inoiz T Weelkes-ek idatzirikoa madrigal ederrenetarikoa Vesta, Latmos-ko mendixkatik behera zeto-

rrenekoa edo Pearsal-en *Lay a Garland* madrigalak amodiozko baladak bezain ungarri landu zituzten.

AEB ko Cardinal Singers en planteamendua aurrekoaren oso desberdina da. Talde lan ikaragarriak, ahots teknika argi, efektibo eta oso bateratuak, ahotsen arteko homogeneitate berezia eskaintzen die. Lehiakortasunari erronka eginez, konpromezu gogorreko eta eskakizun handiko partituren bila XX. mendeko europar ekialdeko ondarrera jo dute, bai eta hauek bizkor landu ere.

Bitxia da egitaraua egiterakoan darabilten hizkuntza eta itzulpen kriterioa; herrialde eta nazioak gaztekeraz izenburuetan eta abesti eta koruen izena gehientsuenak jatorrizko hizkuntzan edo euskaraz baino ingelera edo gaztekeran idaztea nahiago. Hurrengorako normalkuntza?

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

**Mikaela Rosario Itura
Pikabea**

Xelpurun jaio
Txanpañen bizi
90 urtez 4 seme-alaba
eta 12 biloba eta birloba
hazi eta hezi.

Eskerrik asko amona Roxari eman diguzun guztiagatik.
BILOBA eta BIRLOBAK

urteurrena ▶

lehen urteurrena
Gorka Manzisidor Zigarán
'Mantzi'

2005eko azaroaren 6an hil zen, 28 urte zituela.

Zenbat negar eta zenbat min
ta zenbat gau lo ein barik
zenbat muxu eman gabe
zenbat malco... maite zaitudalako

Zure arreba Nekane eta Mirianek
eta anaia Iñakik, ez zaituzte inoiz ahaztuko

▶ Haren aldeko meza izango da, bihar, 12:00etan, Zestoako parrokian

ZESTOA, 2006ko azaroaren 4a

GIZARTEA ▶



Txaraman, egindako festaren une batean, emakumeak dantzan eta kantuan. HITZA

«Bai, nahi dut» saharar erara

Lehen saharar ezkontza ospatu da eskualdean; tea eta arkumea ez dira inoiz falta, eta ez da alkoholik edaten; garrantzia dute usainek, musikak eta dantzek

ENERITZ MAIZ

Urriaren 21ean, ospatu zen Txaraman, eskualdean izan den lehen saharar ezkontza. Rabia Bent Ahmed buba (1971) eta Tufah Lehib (1962) bikoteak, familia, lagunak, Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarteak eta Leaburu-Txaramako Udalari esker, ospakizuna, beraien erritura ahalik eta gehien hurbilduz egitea lortu zuten.

Rabia eta Tufahek, 1991. urtean ezagutu zuten elkar, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan eta orduz geroztik daude elkarrekin, nahiz eta, bananduta bizitzea suertatu zaien. Tufah senarra, Tenerifan bizi izan den bitartean, Rabia emaztea, apirilaren iritsi zen Tolosara. Ezkontza eguna zehaztu gabe bazuten ere, Tufah, hila-bateko oporrak hartu eta iritsi zen Tolosara ezkontza ospatzeko asmoz; «urriak 17ean erabaki genuen larunbatean bertan egingo genuela ospakizuna». Hiru egun zituzten gonbidatuei abisua pasa, festa egingo zen lekua lortu, apaintzeko gauzak, arropak, jatekoak... hau da, ospakizunak behar dituen xehetasun eta gauza guztiak eskuratu eta prestatzeko. Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarteak kide den Ana Sanzek adierazi digunez «zailenetakoa bizirik behar zituzten adineko arkumeak aurkitzea izan zen».

Guk hemen ospatzen ditu-



Rabia eta Tufah senar-emazteak Tolosan emango dituzten azken egunetan. ENERITZ MAIZ

gun ezkontzekin ez dute zerikusirik; gure ezkontzetan urte bat lehenago hasten da bikotea prestatuta lanak egiten eta hauek aldi, beraien egun handia prestatzeko, hiru egun nahikoa izan zituzten. Dena den, hemengo ezkontzekin gertatu den bezala, sahararrek ere, euren ohiturak aldatu eta gaurko egunetara egokitu dituzte, batez ere, 1975. urtean eman zen iraultzaz geroztik. Gaur egun, gure ezkontzetan bezala, gauza asko, tradizio-gatik egiten dituzte eta ez, fede edo sinesmenagatik.

Mutilak, bere ordezkaria—familiakoa edo laguna—neskaren familiarengana balditzen du, ezkontzeko duen nahia adieraziz. Gehienetan, neskaren lagun bat edo ahizpa izaten da mutilaren sentimenduak aztertzen dituen eta ho-

nek onartzen badu, orduan familiak, ezkontza baieztatzen du eguna zehaztuz.

Ezkontzaren xehetasunak

Zeremonia Cadi deitzen dioten epaile batekin egiten da. Eta bertan izaten dira baita ere, bikotearen alde bakoitzeko ordezkari bana, bi testigu eta bertaratu nahi duten heldu guztiak, atekak zabalik izaten dituzte. Bikoteak izango dituen baldintzak zehazten dira, baina gaur, soilik balio sinbolikoa dute; bestetik, Koranaren pasarteak irakurtzen dituzte, horrela bikotea ezkontua gertatzen delarik. Jarraian, bertan dauden emakumeek, *ululu* tradizionala oihukatzen dute, gure irrintzieren parekoa den zerbaite. Bikotea aldi, ez da bertan egoten, bakoitza bere

gurasoen etxean aurkitzen da prestatuta lanetan baina Rabia eta Tufahen kasuan, Tufah, Lizartzan prestatu zen lagun batzuen etxean, bere jantzi dotoreenekin, *daraha* txuria eta durbante beltza; Rabia, berriz, Tolosako bere etxean prestatu zen ordu luzez: «hanka eta eskuak hennaz margotu zizkidaten eta dena bukatzeko zortzi bat ordu behar izan zituzten, oso dotore jarri ninduten; gero, *melha* deitzen diogun jantzia janzen dugu, kolore beltzekoa azpian eta zuria bere gainean eta buruan, ile guztia txirikordetan bildua eta harri bitxiekin apaindua izaten dugu. Eta egun honetan, lehen eta azken aldi, arpegia beloz estalia eramaten dugu».

Ezkontuta daudenaren abisua ematen zaio bikoteari. Hauen kasuan, Tufah Lizartza-

EZKONTZA

Zeremonia bikotea bertan izan gabe egiten da, eta ondoren izaten dute ezkontuta daudenaren berri

tik, Tolosara joan zen Rabiaren bila eta ondoren, jada gonbidatuak festan zeuden Txaramako lokalera gerturatu ziren. Gizonak, emaztea besarkatu eta babesten du eta festara, senar-emazte direla sartzen dira. Festa guztian zehar, senarra, erabat emaztearen ondoan egoten da. Ana Sanzen arabera, «hori izan zen unerik hunkigarriena, eta baita, familiakoei eta lagunak, abestuz eta *ululu* tradizionalak eginez inguratzen ere».

Ondorengo festa

Familiak eta lagunak, ohikoa baino handiagoa den afari berezia prestatzen dute, bikotea iritsi bitartean eta «bertatik pasatzen den orok, sartu eta festaz gozatzeko aukera du, eskuzabal hartzen da jendea». Prestaketari dagokionez, «zoru guztia alfonrez tapatzen dugu eta gonbidatuak, zuzenean, bertan esertzen dira besteak beste, fruitu lehorrak, datilak eta arkumea dastatuz. Gure ohiturei jarraiki, arkumeak, egunean bertan hil eta prestatzen dira. Edateko alkoholik ez da izaten eta zukuz gain, tea da inoiz falta ez den edaria» Usainak ere bere garrantzia du ezkontzetan, «koloniaz bustitzen dira gonbidatuak eta emakume sahararrek prestatutako *lebhora* —intsentsu mota bat— erretzen dugu». Musika tradizionala izaten da entzungai eta gizonak eta emakumeak binaka edo talde txikitik, dantzara ateratzen dira erdiko pasillo batera, «ospakizunarengatik sentitzen duten poza adieraziz».

Bikoteak berriz ez du ia ezer ere jaten, Tufaharen hitzetan «tripa zoriontasunez bete nuen», baina «bakoitzak bere etxean jaten du ezkontza egiten ari diren bitartean», gehitzen du. Bikotea, ordu txikitik, festa utzi eta etxera joaten da baina gonbidatuek bertan jarraitzen dute aspertu arte.

Bestetik, aipatu gabe utzi ezin daitekeen gauza da saharar emakumeak duen indarra eta agintea. Emaztearen esanak garrantzi handia du eta bikote honen kasuan ere, Tufah adierazi bezala, «Rabiak nahi badu Tenerifera joango gara bizitzera», eta azaldu zenez, «lau edo bost haur izateko asmoa dugu».

GIZARTEA ▶

Sentsazio ona izateko eta norbere osasuna hobetzeko, eman

Alegiko taldetxo batek aurten 25 aldiz eta 50 aldiz odola emateagatik Gipuzkoako odol-emaleen garaikurra jaso du



Idoia Irazustabarrena, Margarita Urdangarin, Juan Inazio Rekondo, Iñaki Mezkitza eta Patxi Renobales. n. u.



Ibarran, Berastegi, Leitza, Tolosa, Villabona, Irura, Anoetan, Asteasu, Amezketan, Alegian eta Ikaztegiaren egiten dituzte odol-emateak. n. u.

NEREA URBIZU

Borondatez egindako gauzak ez omen dira askotan behar bezala eskertzen. Ezta beharrik ere odol-emaleentzat. Izan ere, odola ematearekin batera, «bizi ematen dutela jakiteak asko balio digu».

Alegiko bost odol-emale izan ziren TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN hitz egiten. Hauek duela egun batzuk Gipuzkoako Odol-emaleen elkarteak emandako saria jaso zuten: plaka eder bat emateaz gain Liernin egindako bazkaria ere izan zuten. Urtero dira 25 aldiz eta 50 aldiz ematera iristen direnak eta horregatik jaso dute garaikurra: «aurten gu izan gara ba-

tzuk. Kopuru hori ematera iristen zarenean nolabaiteko saria-edo ematen dute».

Odola ematearen aldeko arrazoiak asko dira, baina garrantzitsuenak hauek dira: odola beharrezkoa da eta ezin da fabrikatu eta giza odolak bakarrik salba ditzake pertsonak. Solidario egiten zara eta horrek ondo sentiarazten du. Bestalde, segurua da eta ez du gaixotasunik kutsatzen. Baina, larrialdi kasu batean emateak ez du ebazten odol faltaren arazoa. Euskal Herrian oraindik ez da iritsi nahiko litzatekeen mailara.

Odola ematea oso ekintza erraza da, minutu batzuk irauten ditu, ez du osasunerako inolako arriskurik eta guztiz

asebetegarria da. Odola emateko baraurik ez egotea gomendatzen da eta, otordu garrantzitsu bat egin ondoren bada, bi ordu igaro arte itxarotzea. Gure odol-emaleek «kamila erosoa etzanda egon ondoren altxa eta mokadutxo bat ematen dizute, berrindartzeko».

Odola ematera joatean oso garrantzitsua den irakurgai banatzen dute eta ez odolik ematea bertan deskribatzen diren kasuetakoren batean aurkitu ezean, emalearen fitxa delakoa banatzen dute: odol motaren arabera kolore batekoa edo bestekoa ematen dute: emale berria, emale pasiboa (azken dohaintza duela hiru urte edo gehiago egin duena) edota ohiko emalea. «Nahiz eta askotan joan, beti ematen digute fitxa, bada ez bada ere».

Fitxa hau lau bloketan dago banatuta: medikuak berak sartzen dituen azterketa fisikoren datuak, norberaren osasunari eta bizi ohiturei buruzko galdera batzuk bete behar dira, bai edo ez erantzun beharrekoak. Ohiko emaleentzako orrietan, itaun sorta honen ordeztu garrantzitsuenen oroiri larri bat ageri da. Emale eta odola hartuko duenaren segurtasunerako, beti irakurri beharrekoa da, odola

askotan emanda ere. Medikuek edo erizainak segurtatuko du dohaintza ez dela kaltegarria izango ez zeure osasunerako ez eta zure odola hartuko duenaren osasunerako ere.

Gero «tentsio arteriala eta pultsua neurtzen dituzte» eta, proba erraz baten bidez «anemiari ez daukazula egiaztatzen dute».

Odola emateko baldintza guztiak betetzen badira, eseri eta «ziztatadxo arin bat bestetik ez da sentitzen» besoaren tolesturan. «Ez du minik ematen», diote odol-emaleek. 7-10 minuturen buruan zainetan zirkulatzen duen odoletik 450 ml-ak aterata daude, taupaden eta pultsuaren arabera, beti ere.

Ez dago inolako arrazoirik ahultasuna edo beste edozein sentsazio arraro sentitzeko, baina «horrelakorik gertatuko balitz, esan eta arreta berezia eskaintzen dute medikuek. Beldurra medikuz inguratuta egonda, non seguruago?».

Erauzitako odola egun gutxi tan berreskuratzen da, eta betiko bizimoduarekin normal jarrai daiteke. Gomendagarria da alkoholik gabeko likido ugari edatea eta ariketa fisiko bortitzik ez egitea odola eman ondorengo orduetan. Ondoen sentituta ere, beste 10 bat minutuz «ahamen gunean» gertatzea gomendatzen dute.

Odola emateko epeak ezarritako daude. Bi emateren arteko gutxieneko tartea bi hilabetekoa izaten ohi da. eta odola emateko gehieneko maiztasuna, gizonetakoek 4 emate urtean eta emakumeek, aldiz, hiru egun ditzakete.

Odola ematearen arrazoiak

Odola ematearen arrazoiak ezberdinak dira: Margarita Urdangarinaren kasuan, «senarra hil zenean hasi nintzen, beharra zegoela ikusi nuelako». Idoia Irazustabarrenak, aldiz, «kostatzen ez den zerbait da, eta ondo sentiarazten dizun zerbait da, gainera ez zaude horretara behartuta: ezin baduzu eman, ez da ezer pasatzen». Iñaki Mezkitak esan zuenez, «hurbileko norbaitek behar duela ikusi nuenean hasi nintzen ematen: askori laguntzen diozula jakiteak nolabaiteko satisfakzioa ematen dizu».

Juan Inazio Rekondok egia biribila bota zuen: «nik nahiago dut odola ematea, hartu behar izatea baino: ez da ezer kostatzen eta gainera laguntzarekin oso ondo sentitzen naiz». Patxi Renobalesek bere «osasuna hobetzeko, edo arintasuna sentitzeko ematen dut, ez dut buruan beste pertsona bati lagundu behar diodala».

Odol-emaleek zera zabaldu

DATUAK ▶

ZENBAKIAK

- ▶ la litro erdi odol ateratzen dute aldiro.
- ▶ 3tan atera daiteke odola urtean. Gizonetakoek, lau ere posible dute.
- ▶ 10 minutu, odola atera ondoren eserita geratzea gomendatzen dute.
- ▶ 7 minutu batez beste, behar dira ia litro erdi odol ateratzeko.
- ▶ Erauzitako odola egun gutxitan berreskuratzen da.
- ▶ 1.175 odol-emale inguru daude bi eskualdeetan.
- ▶ 18 eta 65 urte bitartekoek eman dezakete odola.

RENOBALES

ODOLE-EMALEA

«Niri oso ondo etortzen zait odola ematea: buruko minak eta arintasuna sentitzeko balio izaten dit»

URDANGARIN

ODOLE-EMALEA

«Senarra hil zenez geroztik odola ematen hasi nintzen: 65 urtetik gora ezin da eman, eta pena hori dut»

IRAZUSTABARRENA

ODOLE-EMALEA

«Ezin baduzu Alegian bertan odola eman arrazoirien batengatik, beste lekutan ere egin dezakezu»

MEZKITA

ODOLE-EMALEA

«Behar duen jende askori laguntzen diozula jakiteak nolabaiteko satisfakzioa ematen dizu»

REKONDO

ODOLE-EMALEA

«Nahiago dut odola nik ematea, hartu behar izaten ibiltzea baino: ez da ezer kostatzen ematea»

zuten: «odola ematea bizi ematea da: ez du minik ematen, ez da ezer kostatzen eta gainera gure gorputza hobeto sentitzen da eman ondoren». Barraren artean gogoratu zuten, «sikiera, pintxoengatik!».

IBARRA ▶ GIZARTEA

Unai Otañori eta Jexux Mari Mujikari omenaldia biharko ohiko babarrun jatean

Otaño eta Mujika aizkolari ibartarrek Mintegia eta Lopezekin neurtu beharko dituzte indarrak, 12:30etik aurrera, Ibarako San Bartolome plazan



Joandako urtean giro paregabea izan zen Auspoak antolaturiko babarrun jatean. HITZA

IÑIGO ASENSIO

Unai Otaño eta Jexux Mari Mujika omenduko dituzte bihar Ibarako plazan izango den babarrun jatea aitzakiatzat hartuta. Ibarako Hauspoak antolatuta du beste urte batez San Bartolome plazan egin ohi den festa herrikoa. Aurtengoan, bi aizkolari ibartarrak omenezko intentzioarekin, Xabier Mintegia eta Juan Joxe Lopez aizkolari nafarrekin batera prestatu dute hamabi eta erdietan hasi-

ko den aizkora erakustaldia; 12 kanaerdiko moztuko dituzte lan ezberdinetan.

Lehendabizi banakako erakustaldia izango da, eta erlojuaren aurka ariko dira zeinek egurra lehenago moztu. Ondoren zeinek kolpe gutxiagotan moztu ariko dira, hau ere banaka. Horrez gain, binaka ariko dira egurra zutika eta etzanda moztzen. Hau amaituta Iñaki Agirre Ibarako aizkolari gaztearen txanda izango da, kana erdiko bat eta ontzako bat moztuko dituelarik. Agirrek bere lana bukatuta, berriz ere nafar-ibartar lehia izango da. Orduan 6-8 kanaerdiko moztu beharko dituzte txanda librean. Aizkora erakustaldia amaituta, 14:30ean bazkaltzeko ordua iritsiko da. Urtero legez goizetik prestatzen hasiak diren babarrunak dastatzeko aukera izango dute. Bazkalostean, kantuan emango diote jarraipena festari. Bazkarirako tikitak herriko taberna zein elkartetan lortu ahal izango dira 15 eurotan (haurrek 5 euro).

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Kirol gogorra da aizkora baina, batez ere, laguntzarik gabea»

29 urteko ibartar honek Lehen Mailarako pasea erdietsi zuen Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak irabaztean. Urte luzez aizkora utzita ibili zen «lan arrazoiak» zirela eta. Duela 3 urte berritoki aizkora hartu eta bere biziko denboraldia burutu ondoren Lehen Mailan da Unai Otaño aizkolari ibartarra.

Urtetan aizkora utzi ondoren itzuli zinen duela 3 urte. Nola-koak izan ziren hastapenak? 17 urterekin hasi nintzen aitararen eskutik. Gustuko nuen kirola zen eta 20 urtera arte aritu nintzen. Gero lanagatik utzi

nuen eta berritoki ekin nion 26 urterekin.

Azken denboraldia bikaina izan da, ezta?

Egia esan denboraldi ona izan da. Martxoan Lasak eta biok Olasagastirekin eginiko apustua irabazi genuen. Ondoren Gipuzkoako Txapelketa heldu zen eta irabazle suertatu nintzen. Irailean Euskadikoa irabazi nuen. Lehen Mailara helbetea lotu dut; pozik egoteko denboraldia da bai.

Nola sortu zen Xabier Mintegia eta Juan Joxe Lopezekin apustua egitearen ideia?

Jexux Mari Mujika eta bioi



I. ASENSIO

omenaldia egiteko intentzioa zutela esan ziguten eta ikuskizun bat prestatzeko aukeran pentsatu zuten. Horrela sortu zen bi ibartar bi nafarren aurka lehiatzearen ideia. Lehenago erakustaldia izango da, gero Iñaki Agirre ibartar gazteak

ere moztuko du kanaerdiko eta ontzako bana eta ondoren txanda librean ariko gara berritoki bi naparrak Mujika eta biok.

Zein dira denboraldi berritoki dituzun espektatibak?

Ba niretzat maila mantentzea

da helburu nagusia. Gipuzkoako Txapelketan azkenak maila galtzen du. Hori ekiditzea nahikoa litzateke niretzat.

Kirol gogorra da aizkora. Gogorra eta garestia, ezta?

Bai kirol gogorra da baina batez ere laguntzarik gabea. Entrenatzeko egurra behar dugu eta garesti ateratzen da. Gainera aizkorak ere prestatu behar dira eta azkenean esfortzu ekonomiko handia egin behar izaten dugu. Gero lehiaketetako sariek ez dute gehiegirik ematen. Askotan pentsatu izan dut, 8-9 ordu lanean aritzea aizkoran aritzeak diru piloak kostatzeko... uzteko gogoa ere ematen du. Aurtun Lehen Mailan kostuak areagotu egiten dira, egur gehiago behar delako. Udalak diru-laguntzarik eskainiko duenaren esperantza daukat, beste kirolei ere laguntza eskaintzen zaien bezala aizkorak ere merezi duelako. ◀

BEDAIO ▶

Bertso-gaztain afaria izango dute gaur

Gaur Bedaioko Artubi elkartean bertso-gaztain afaria izango dute, 21:00etan. Bertsoan Amaia Agirre eta Unai Muñoa lasartearra ariko dira. Afaria irekia da eta denei gonbitea luzatzen diete bedaiotarrek.

VILLABONA ▶

Clarke eta Artola Gipuzkoako Futbol Selekziara

Julen Clarke eta Ion Ander Artola Villabona futbol taldeko jokalariek Gipuzkoako 14 urtez beherako futbol selekzioan jokatzeko aukeratuak izan dira. Datorren astelehenean jokatu Donostian 15:30ean.

ALEGIA ▶

Infantil mailako pilota partidak gaur arratsaldean

Intxurre 1- Kuku eta Aurrera Saiaz 3- Behar Zana 1 izango dira G multzoko partidak eta Erniope-Gazteleku eta Behar Zana 2-Aurrera Saiaz 1 H multzokoak. 16:30ean hasiko da Gipuzkoako Txapelketako gaurko lehen partida.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

XABIER OLARRA ▶ ITZULTZAILEA

«Itzulpengintzaren garrantzia areagotu egin da azken urteetan»

Itzulpengintzako Euskadi Saria irabazi du Xabier Olarra tolosarrak

NAIARA GARZIA

Xabier Olarrak (Tolosa, 1953) urte asko daramatza itzulpen-gintzan, jada 20tik gora liburu itzuli baititu. Aurten, Itzulpen-gintzako Euskadi Saria irabazi du, Raymond Queneauren *Estilo ariketak* liburuarengatik. Liburuak 2005. urtean berak beste bi tolosarrekin 1989an sortutako argitaletxean (Igela) argitaratu zuen.

Noiz hasi zinen itzulpen-gintzan?

Irakasle nintzela ere lehenbiziko nobelak euskaratzen hasi nintzen. Nobela beltzeko ale batzuk itzuli nituen orduan, *Karteroak beti bi aldiz deitzen du* adibidez. Horrelako batzuk irakasle nintzen garaian itzuli nituen. 2000. urtean Eusko Jaurilaritzaren arlo unibertsala deitzen den horretarako ere *Deabruaren Hiztegia* itzuli nuen. Orotara 20tik gora itzulpen egin ditut.

Itzulpengintzaren papera beti izan al da garrantzitsua?

Itzulpen-gintzak beti izan du garrantzia. Orain denok eskura

dauzkagu hango eta hemengo gauzak, eta garrantzi handiagoa izan dezake horrexegatik, dena eskura dagoelako.

Itzultzailea zure ustez bitartekari hutsa al da?

Normalean bitartekari bat besterik ez da, hau da, zubi lana egiten du. Beti esaten da itzulpena ez dela jatorrizkoaren kopia soila, sorkuntza lan bat ere izan daitekeela eta hori batzuetan, beste batzuetan baino gehiago gertatzen da.

Raymond Queneau-ren liburuaren inguruan frantses hizkuntzaren 'Genie' delakoari erabat lotua dagoela esan dute, hau da, itzulezina zela. Liburuak itzuli ondoren, zer pentsatzen duzu?

Kasu honetan, Raymond Queneauren *Estilo ariketak* itzultzeko orduan, adibidez, gauza batzuk itzulezina zirela ikusi nuen. Badira ariketa batzuk argot jakin batean eginak daudenak eta hori zuzenean itzultzea oso zaila da, ia ezinezkoa. Horrexegatik, horrelakoetan egokitzapenak egiten dira. Esaten da dena dela itzulgarria baldin eta mamia eta edukiaren forma funtsezkoa bada esanahia lortzeko.

Itzultzaile izateak idazle izatera, hau da, zure mundu propioa sortzera dagoen pausoa txikia al da?

Nire ustez, batak bestearekin ez du zerikusirik. Bat izan daiteke sortzailea eta kito, hori bukatzen da. Beste bat izan daiteke itzultzailea soilik, oso ongi itzuliko du, emango du bere hizkuntzara han dagoena oso ongi, eta hortxe bukatzen da. Badira obra batzuk sormen lan bat exijitzen dutenak, baina hori ez da itzulpen lanean funtsezkoa.

Idazle izateko, beraz, zer da beharrezkoa?

Horretarako ez da aski nahi izatea. Itzultzaile izateko behar ez diren beste gaitasun batzuk behar dira.

Ze gaitasun?

Bere burutik mundu batzuk sortu ahal izatea eta gero hori



HITZA

modu txukun batean eman ahal izatea. Hori behar du funtsean idazle batek. Bere burutik atera behar du hori guztia. Itzultzaileak ez, itzultzaileak hortxe dauka beste batek bere burutik atera duena eta hura bere hizkuntzan eman besterik ez dauka.

Irakurle bezala, zer da liburu batean bilatzen duzuna edo zer eratako literatura gustatzen zaizu gehien?

Niri literatura, musika bezala, klase askotakoa gustatzen zait. Batzuetan denbora pasako liburu bat irakurriko dut, eta ez dut beste ezer bilatzen han; eta beste kasu batzuetan beste gauza batzuetan erreparatzen dut.

Lehenengoa izan zelako gogoan duzun liburu bat, edo lehenengoz atentzia deitu zizun liburu bat?

Gazte garaletakoak ez dauzkat bereziki gogoan, baina niretzako *Odol Hotzean* bezalako liburu bat lehenbiziko aldiz irakurterakoan ez nuen inolaz ere liburu hori itzultzeko asmorik. Liburu batek zera lortu behar du, puska bat irakurri eta lanetik atera eta liburu hori berrir irakurtzen desiratzen egotea. Hori liburu askok eta askok ez dute lortzen. Gusto aldetik oso zabala naiz. Gustora irakur dezaket Joseba Sarrionandiaren liburu bat eta gero denborapasa-ko nobela sinple bat, *Karteroak bi aldiz deitzen du beti* bezala.

**Hasi eta amaitu gabe liburu-
ren bat utzi al duzu, kanona-
ren arabera oso garrantzitsua
izan arren?**

Azkenaldi honetan liburu bat baino gehiago.

Hori egiteko inolako arazorik ez duzu, beraz?

Orain dela urte asko liburuak beti amaitu behar zirela uste nuen, baina orain ez dut arazorik. Lehenengo ekinaldian behar bezalako gustorik hartzen ez badiot, hortxe gelditzen da. **Raymond Queneau-ren liburu Frantziaren argitaratu zenean arrakasta izan omen zuen. Hemen, berriz, zuk itzuli baino lehen erderaz ale bakarra saldu omen zen.**

Bai, baina hori ongi ulertu behar da. 1947an argitaratu zen, gerrondorean, eta arrakasta izan zuen. Gaztelaniaz, berriz, duela 20 urte argitaratu zen. Horrekin adierazi nahi nuen klasikoak ahaztuta gelditzen direla. Liburuak ez dira garai batean bezala bizitzen, produktio handia baitago.

Igela argitaletxean ze liburu mota dituzue?

Gauza asko eta ezberdinak daude. Guk ez daukagu inolako arazorik bigarren mailako literaturatzat dauden lanak argitaratzeko. Hauetaz gain, idazle handienak ere egon behar dira. Tajuzkoak iruditzen zaizkigunak ateratzen ditugu eta horrek ez du esan nahi gure gustu literarioak hortik kanpo egon ez daitezkeenik.

MENDIA ▶

Mendiko materialen azoka Oargik antolatuta

Oargi elkarteak Mendi Astea antolatu du eta egitasmo honen baitan hilaren 20tik 25era bitartean mendiko materialen azoka egingo da. Merkatua Oargiren egoitzan bertan egongo da. Hala, hona materiala eraman nahi duenak, 637 83 03 80 telefono zenbakira dei dezala eraman aurretik.

KULTURA ▶

'Esperientziak' erakusketaren azken astea

Tolosaren 750. urteurreneko ekimen nagusienetarikoa izan den *Esperientziak* proiektua amaitzera doa. Hilaren 12ra bitarte izango da ikusgai Aranburu Jauregian. Astelehenean izan ezik, egunero egongo da zabalik 17:30etik 20:30era, igandea barne.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Itzarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurraremendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

AGENDA ▶

38. ABESBATZA LEHIAKETA

Tolosa. 11:00etan, Santa Klara elizan, Musika Ertlijosoa sailean parte hartuko duten Ahots Taldeen kantaldia; 16:00etan, Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen ekitaldia; 19:30ean, Leidorren, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa; 22:00etan Tolosako udaldebekian lehiaketara etorri diren abesbatza zuzendari eta pertsonen harrera ofiziala; 23:00etatik 02:00etara, Beotibar pilotalekuan, abesbatza dantzaldia; jaialdiaren baitan epaimahaiaren erabakia jakitera emango dute.

DEIALDIAK

Orexa. Kultur Astearren baitan, 21:00etatik aurrera herri afaria egingo dute *Orexak 100 biztanle* gala. Ondoren, DJ Bullen disko festa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegana.*

Goiko irrata (107.0 FM)
12:00. *kornera*

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Martxan gaude oraindik»

TOLOSA ▶ Ahotsak plataformak Tolosaldean lantalde bat osatzeko lehen bilera burutu zuen herenegun, Tolosako Kultur Etxean; lehen «hartu-ema» izan da



Herenegun Kultur Etxean Ahotsak plataformaren lehen bileran bildutako emakumeak. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Udan etenalditxoak izan bada ere, ez gaude geldirik», adierazi zuten herenegun Tolosako Kultur Etxean Ahotsak plataformako or-

dezkariek Tolosaldean lantalde bat osatzeko helburuz eginko lehen bileran. Silvana Ostizak eta Onintza Lasak zuzendutako bileran. Olatz Peon ere bertan zelarrik. Haiekin batera, herriko beste 50 emakume in-

guru hurbildu ziren, deialdiarekin bat eginik. Bertan, iragan uztailean eginko plataformaren aurkezpena azaldutakoak ekarri zituzten gogora eta ordutik emandako urratsak azaldu zituzten.

Batetik, Bilgune Feministarekin bildu da haien ekarpenak jaso ondoren, aurretik zuten dokumentua osatu dute. Bestetik, orain dela gutxi dokumentu berri bat kaleratu dute, oraindik ere plataforma martxan dagoela azaltzeko. Honekin guztiarekin batera, heldu den abenduaren 2an, larunbarekin, Bilboko Euskalduna jauregian egingo duten ekitaldiaren berri eman zuten. Helburua «bertan 3.000 emakume biltzea izango da eta guk eskualdetik hori lortzeko lan egingo dugun». Hala, eskualdeko emakume orori deialdia luzatzeaz gain, lanean jarriko dira girotzeko eta informazioa zabaltzeko. Horretarako baliatuko dute, hain zuzen, datorren ostegunean, hilaren 9an, 20:00etan Kultur Etxean egingo duten bigarren bilera, guztia antolatzeko, alegia. Asteburuan herritarrei informatzeko mahaia jarriko dituzte eta Bilbora autobusa antolatuko dituzte, besteak beste. Horretarako lan batzordeak osatuko dituzte guztia ondo lotzeko.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ander Jaular Arancegui.
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat ebekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behe
- ▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Klasikoaldia
Musika klasikoko aukerarik zabalena prezio onenean
www.ekar.com

ekar
www.ekar.com

ARRASATE - BAZONA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IZURNA - TOLOSA